

Sagardo Festak giro alai sortuko du gaur Otegi sagardotegian

Idazkuntza-ikastaroan izena emateko epea asteartean bukatzen da

TXEMA VALLES
DV. LASARTE-ORIA


Gaur ospatuko da Sagardo Festa Sollane baserrian, gaueko 9etatik aurrera. Honen bidez, txotxeko denboraldi hasiera emango zaio jai giro ederrean.

Lehenik, afari bikaina izango da: bakailau-tortilla, bakailau frijitua piperrekin, txuleta, sahieskia eta postrea, bertako sagardo berriaz lagundurik noski. Ondoren, Festa giro alai: herriko trikitilari, bertsolari, dultzainarik eta txalapartariak hartuko dute parte. Iazko Sagardo Festak izan zuen arrakasta kontutan hartuz, giroa ziurtatua izango dela esan daiteke. Oraindik afari txartelik gelditzenda. Garai tabernan izango dira eguerdirarte (2.500 pezeta.).

Idazkuntza-ikastaroa

Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Batzordeak duen idazkuntza-ikastaroan izena emateko epea datorren asteartean, otsailak 6, amaitzen da. Ikastaroaren helburua informazio idatzia modu koherente eta zuzenean aditzera emateko beharrezko diren oinarritzko kontzeptuak irakastea da, gauzak idazten ditugunean, zuzen egiteaz gain, ongi komunikatzeko eran egin ditzagun.

Izan ere, gero eta gehiago dira gure herrian ere, eguneroko ihardunean euskaraz idazten edota idazten erakusten dutenak. Hala ere, idazmena oso gutxi landu izan da ohizko formaziobideetan eta idazlanak egin egiten badira ere, ez da inon irakatsi batere tek-



Afal ondorengo giroa ziurtatua dago./TXINTXARRI

nikarik lan hori duintasunez egin ahal izateko.

Idazkuntzan ere mezua eta forma daude. Zeresana idazten duenaren esku geratuko da, baina formari dagokionez, badaude zenbait teknika ezagutu beharrekook gure idatziak zuzenak eta esanguratsuak izango badira. Hori dela eta, unibertsitateko ikasle, kazetari, esatari, irakasle edo euskaraz idazten duen edonor izan daiteke ikastaro honen jasolea.

Ikastaroa praktikara zuzendurik dago eta testu-mota desberdinak landuko dira. Ikastaroa bi ardatzen inguruan garatuko da: idazkuntza-teknikak eta arauak. Lehendabizikoan testua osatzen duten elementuak aztertu eta landuko dira, puntuazioa eta perpausetik hasi eta paragrafora iritsi arte. Bigarrenetan berriz, azken urteotan euskara batuaren inguruan sortu diren arau eta gomen-dioak sistematikoki ezagutu eta erabiltzen irakatsi nahi da.

Ikastaroa 36 ordukoa izango

da, astean behin (ziurrenik astelehenetan), 3 orduko saioak (ziurrenik 18:00etatik 21:00etara) izango direlarik. Irakaslea Julia Marin Arteaga izango da eta Kultur Etxean burutuko da. Matrikula 10.000 pezetakoa izango da.

Matrikula-epea otsailaren 6ra arte dago zabalik eta Euskara Zerbitzuan egin behar da.

Ttakunen biltzarra

Gaur, larunbata, arratsaldeko 6.30etan hasita Ttakun Kultur Elkarteak bere IV. Biltzarra burutuko du. Ekitaldia Kultur Etxeko hitzaldi aretoan izango da eta, beronen helburua, elkarteak bazkideekin batera 95. urtearen balorazioa eta 96. urteko egitasmoen aurkezpena izango da. Horretarako, 95. urtean egindako lanaren errepasso orokor bat egingo da (lantaldeka) eta ondoren, 96. urtera begira Ttakunek izango dituen lantaldeak, bakoitzaren egitasmoak eta arduradunak jakinaraziko zaizkie bazkideei.